

Shamir & PSOE International Co.

El Mundo del País Vasco, 1991-12-13.

PSOE Espainiako alderdia da. Halere, ezagunak dira "bere nazioarteko joerak. Oraindik noizean behin abesten dute: "Internazional" hura.

Ekintzaz ere gustatzen zaie bakezale agertzea han hemenka, baina beti Espainiatik kanpora. Hor aurkitzen dute bere jokorako elegantea den terrenoa. Amerikako herrien artean bakea egiten ibiliak dira. Madrilen bertan ireki berria da kanpotarrentzat Bake Konferentzia ospatsua. Kaskourdinak Yugoslaviara bidaltzeko prest daude. Zaila da Espainiako sozialistei alderdi honetatik akatzik aurkitzea. "Egia da", zion lagunartean adiskide batek herenegun, "hain berea den Estatuan gauzak hain kontrato hartzea"... Eta honetan ohartu nintzen ni, baietz, PSOEek Espainia barruko borrokak ez dituela aintzakotzat hartzen. Estatu barruko eten eta liskarraz, partidubarruko iskanbilaz, bere Espainia barruko gerraz, terrorismoaz, ez dela pakebidean ari, borroka latz honen inguruan negar egiten baizik, oker dabilzan gauzak gehiago okertzen, barruko suari erretzen uzten. Badirudiela eragin honek daukala bere politikako motorra martxan; lokan ordea, zarata hutsean geratzeko. Honetan hari zen lagunartea, Shamir juduen buruak ere ez zuela Washingtonera bakegintzako sesio batera joan nahi, hemengoa ezkerria faltsoa bezain egoskorra zela bere eskuineko egi antzu bakarria defendatzen, Juxto adarjotzaileak bota zuen orduan, Shamir delako zezen txiki hau PSOEtarra zela! Hau ez nuen sinetsi, gehiegizko gezurra baitzen eta alde egin nuen sesioa sortu aurretik, gonbaraketak ezin dira eta hain urrun eraman!